


EAEko gazteek azaroaren 20an izango diren hauteskunde orokorreri emandako garrantzia 2004ko eta 2008ko hauteskundeeri emandakoa baino handiagoa da

Hala ere, gazteen laurden batek azaroaren 20an ez dela botoa ematera joango dio argi eta garbi

EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %57k azaroaren 20an izango diren hauteskunde orokorrak garrantzi handia edo nahikoa dutela beraientzat adierazi dute.

Gazteek azaroaren 20ko hauteskundeeri emandako garrantzia 2004ko eta 2008ko Kongresu eta Senaturako hauteskundeeri emandakoa baino handiagoa da.


Nahiz eta hauteskunde orokorrek gazteentzat duten garrantzia handitu den aurreko hauteskunde orokorretatik hona, biztanleria osoarentzat dutena baino zertxobait baxuagoa da oraindik.



Bestalde, azaroaren 20an izango diren hauteskundeetan bozkatuko duten galdetzerakoan, gazteen %40k diote seguru beraien botoa emango dutela (0 eta 10 arteko boto-probabilitatearen eskalan, 10 puntu); %23k seguruenik bozkatuko dutela adierazi dute (5 eta 9 arteko puntuazioak aipatutako 0-10 arteko eskalan); %7k seguruenik ez dutela bozkatuko diote

(1-4 arteko puntuazioak aipatutako eskalan); eta, azkenik, %27k ez dutela inola ere bozkatuko (0, eskala berberean) azaldu dute.

Biztanleria osoan, aldiz, gazterian baino handiagoa da ziur bozkatuko dutela dioten en proportzioa (%49) eta txikiagoa, ordea, ziur ez dutela bozkatuko diotenena (%19).



Datu guzti hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu eta landu egin ditu, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2004an, 2008an eta 2011n egindako ikerketen emaitzetatik abiatuta.